





Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	4.779 biztanle
Zabalera:	287,75 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Lizarrerria (ikus mapa)
Udalerriak:	Abartzuza, Gesalatz, Lezaun, Oteitza, Jaitz, Villatuerta, Deierri (Bearin salbu)

2. Komunitatea eta osasuna

Villatuertako eskualde oinarritzkoan, biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 40etik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Villatuertako eskualde oinarritzkoa da bakarrik bizi diren 80 urte eta gehiago emakumezkoen etxeen portzentaje txikiena (%25,9) dutenetakik eta, berriz, gizonetan, portzentaje handiena (%23,5) dutenetakik. Jaiotza tasa txikienetakoa da (%6,9) eta zahartzarako mendekotasun indize handienetakoa (%40,0).

Villatuertakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean, diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%5,0), urteko kontrol erregistratua duten hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%76,1) eta emakumezko (87,2 urte) nahiz gizonezko (80,7 urte) jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez. Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen

%25en artean artean dago, urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%61,4).

Nafarroa2000 zonifikazioan Villatuertako eskualde oinarritzkoa Lizarrerriko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Lizarrerriari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %37,4k diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %25,7k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errollda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Lizarrerriko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduiko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean ,talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 21,0 eta gizonezkoak 9,6); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 6,3); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.